

KONTSULTA FASEA, OSASUNARI BURUZKO FORU LEGEAREN AURREPROIEKTUA PRESTATU AURREKOA.

Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legearen 44. artikulua aitortzen du herritarrek eskubidea dutela xedapen orokorrak prestatzeko prozesuetan parte hartzeko iradokizunak igorri. Parte-hartze hori eraginkorra izan dadin, Administrazio Publikoko departamentu bakoitzak xedapen orokorrak prestatzeko abian diren prozeduren zerrenda argitaratuko du, bakoitzaren xedea eta tramitazio egoera zehaztuta.

Alde horretatik, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta Foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11koa 11/2019 Foru Legearen 133. artikulua arautzen du herritarren parte-hartzea foru lege eta erregelamendu maila duten arauak prestatzeko prozeduran. Honela dio:

“1. Lege baten edo erregelamendu baten proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren web atariaren bitartez, eta bertan jasoko da zer iritzi duten foru legearen eraginpean gerta litezkeen artean subjektu eta ordezkari handiena duten erakundeek, puntu hauei buruz:

- a) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.
- b) Araua onestearen premia eta egokitasuna.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Aukeran dauden beste alternatiba batzuk (arauemaileak eta arauemaile ez direnak)”.

Aurrekoa betez, dokumentu hau prestatu da, Nafarroako Gobernuaren Gardentasunaren eta Gobernu Irekiaren Atarian argitara dadin eta, hala, dagokion kontsulta publikoa egin dadin Osasunari buruzko Foru Legearen aurreproiektuari buruz, honako hauetan oinarrituta:

A) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.

33 urte baino gehiago igaro dira Nafarroako Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea onetsi zenetik.

Harrezkero, aldaketa asko izan dira, arlo guztietan, Nafarroako Osasun Sistema Publikoari zuzenean edo zeharka eragin diotenak.

10/1990 Foru Legea hainbat aldiz eraldatu da etengabeko aldaketetara egokitzeko, eta haren zati garrantzitsu batzuk indargabetu dira.

Adostasun tekniko handia dago sistema erronka berrietara egokitzeko beharrari buruz eta erronka horiei aurre egin ahal izateko beharrezkoak eta egokiak diren tresnez hornitzeari buruz.

B) Araua onestearen premia eta egokitasuna.

Gaur egun, beharrezkoa da arau berri bat onestea, 10/1990 Foru Legea ordeztuko duena, arau horren bidez eratzeke Nafarroako osasun sistema publikoa, osasun ereduak aldatzeko xedea duena, erronka demografiko, epidemiologiko eta teknologikoei aurre egin diezaien, komunitatearen osasuna sustatzeko eta osasun arreta unibertsal jasagarria, ekitatiboa eta kalitatekoa bermatzeko.

2015-2019 legegintzaldian, harremanak ezarri ziren parlamentuko alderdi guztiekin, eta aurreko legegintzaldian Osasun Batzorde Berezi bat eratu zen Nafarroako Parlamentuan, Osasunari buruzko Foru Lege berri baten oinarriak erabaki eta finkatzeko. Batzorde horrek dokumentu bat prestatu zuen, eta onetsi egin zen, Parlamentuko alderdi gehienak ados egon baitziren horrekin.

Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuak foru legearen proiektu bat prestatzeko asmoa du, aipatutako beharra jasotzeko, eta helburua da

Nafarroako Parlamentuan aurkeztuko den foru legearen proiektu horrek ahalik eta adostasun handiena eta denboran irauteko bokazioa izan ditzala eta ez dadila adierazpen hutsa izan; aitzitik, helburuak lortzen laguntzeko benetan berritzaileak diren tresnak eman ditzala.

C) Arauaren helburuak.

Arauk printzipio nagusi batzuk jaso behar ditu, hala nola:

- Osasunaren ikuskera holistikoa (osotasuna zatien baturatik harago doa) eta positiboa.
- Osotasuna, pertsona bakoitzaren alderdi biologiko, psikiko eta sozialak kontuan hartuta.
- Osasuna politika guztietan, sektore arteko esku-hartze komunitarioa lehenetsiz osasunaren baldintzatzaile kolektiboen aurrean.
- Osasun-sistema publiko unibertsalaren defentsa.
- Ekitatea, lurralde eta gizarte elkartasuna, eta benetako berdintasuna sistemaren zerbitzuak eskuratzeko orduan.
- Herritarren ahalduntzea eta erantzunkidetasuna norberaren osasunaren zaintzan.
- Gobernantza ona, gardentasuna, eta kontuak ematea.
- Osasun langileen eta kudeatzaileen erantzukizuna eta profesionalismoa.
- Emaitzetan oinarritutako ebaluazioa.
- Teknologia berrien eta farmaziaren eraginkortasunaren eta efizientziaren gaineko kontrola indartzea.
- Osasun laguntzaren humanizazioa. Pertsonarengan oinarritutako arreta eta antolamendu sanitario eta soziosanitarioetako ereduak.

- Zerbitzuak zentzuz erabiltzea premian oinarrituta.
- Irisgarritasuna eta arintasuna arretan.
- Oinarrizko osasun laguntza, osasun publikoa eta osasun komunitarioa, Nafarroako osasun sistema osoaren ardatz gisa
- Osasun sistema publikoaren modernizazioa eta kudeaketa eraginkorra.
- Profil eta estamentu profesional guztiak indartzea.
- Langileen politika proaktiboa, inplikazioa eta gogobetetze profesionala bultzatzeko.
- Herritarren, profesionalen eta pazienteen parte-hartze eta inplikazio aktiboa prozesu eta zerbitzuen berrikuntzan eta etengabeko hobekuntzan, eta osasun sistema publikoaren kalitatean eta jasangarritasunean.
- Informazio eta komunikazio teknologiek eta sistemek eskaintzen dituzten aukerak aprobetxatzea, aurreko ataletan laguntzeko eta garapen teknologikoa gorabehera pertsoneri arreta emanen zaiela bermatzeko.
- Nafarroako osasun sistema publikoak bere gain hartzea Eskubide Sozialetako Departamentuko zerbitzuek mendekotasuna duten pertsoneri eta kolektibo ahuleneri eman behar dieten osasun laguntza.
- Ikerketa bultzatzea Nafarroako osasun sistema publikoaren maila guztietan.
- Printzipio nagusi horiekin, foru legeak, osasun sistema publikoaren izaera praktikoa eta modernizazioa dakartzan aldetik, modernizatu eta berrikusi egin behar ditu Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua bera, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua, horien izaera juridikoa, antolamendua eta gobernua, eta laguntza kudeaketako eredu berriak definitu. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuarentzat kudeaketa autonomia handiagoa lortu nahi da.

Informazio sistemek, sistema osoaren elementu funtsezko eta zeharkakoak diren aldetik, behar bezala agertu behar dute, osasun erakunde horiek antolatu eta gobernatzerakoan.

Era berean, lankidetzaren publiko-pribatuaren printzipioak ezarri behar dira.

D) Aukeran dauden beste konponbide batzuk (arauemaileak eta arauemaile ez direnak).

Ezinbestekoa da osasunari buruzko foru lege berri bat onestea, gaur egun indarrean dagoena zaharkitua geratu baita. Foru lege berri horrek beharrezko tresnak emanen ditu, Nafarroako Osasun Sistema Publikoa erronka berrietara bideratzeko eta aukera berriak aprobetxatzeko.